

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

8/2020 Foru Dekretu-Araua, urriaren 13koa, Covid-19aren zenbait ondorio arintzeko presako neurri osagarriei buruzkoa.

Covid-19ak osasun publikoaren arloan eragin duen eta Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiatzat jo duen larrialdi egoera gertatu eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma egoera Estatuko lurralde osoan deklaratu zuenetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat izaeratako neurriak onartu eta hartu ditu, osasun larrialdiak eragindako ondorio gogorak arintzearen.

Haien artean nabarmentzen dira tributuen esparruko neurriak, Euskadiko Autonomia Estatutuak eta Ekonomia Itunaren Legeak lurralde historikoei esleitutako eskumenen arabera hartutakoak.

Horrela, eskumen horiek baliatuta, sei foru dekretu-arau eta hainbat foru agindu bideratu ditu Ogasun eta Finantza Departamentuak.

Foru dekretu-arau honen bitartez, sei neurri berri hartzen dira, denak ere Covid-19ak 2020. urtean eta, bereziki, hirugarren hiru hilabetean eragindako egoerei erantzuteko.

Horietako lehenengoak errenta salbuetsi gisa sartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 9. artikuluan, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoa, onartu den maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-Dekretuaren bidez ezarria.

Bigarren neurria lotuta dago Covid-19ak ekarritako osasun larriaren ondorioak arintzeko ematen diren laguntza jakin batzuekin.

Laguntza horien helburua da, alde batetik, kalteberatasun ekonomikoa eta sozialean dauden pertsona edo familiei etxebizitzarako eskubidea bermatu eta familia eta lana bateragarri egitea, eta, bestetik, turismo, sukaldaritza eta ostalaritza sektoreetako establezimenduetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza sektorean kontsumoa sustatzea «Euskadi Turismo Bona» eta «Euskadi Bono-Denda» programen bitartez.

Xedapen arautzaile horien arabera ematen diren laguntzak salbuetsizat jotzen dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, pertsonengan, familietan eta sektore ekonomikoetan Covid-19ak eragin dituen ondorio negatiboak arintzeko emandakoak direla kontuan hartuta.

Hirugarren neurriak jarduera ekonomikoen etekintzat hartzen ditu Covid-19a dela eta autonomo edo profesionalek jarduera uzteagatik 2020an jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak, 8/2020, 24/2020 eta 30/2020 Errege Lege-Dekretuetan arautuak.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral-Norma 8/2020, de 13 de octubre, sobre medidas complementarias de carácter urgente para paliar determinadas consecuencias del Covid-19.

Desde que se produjo la situación de emergencia de salud pública ocasionada por el Covid-19, declarada como pandemia internacional por parte de la Organización Mundial de la Salud, y del estado de alarma declarado en todo el territorio del Estado por el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido aprobando y adoptando diversas medidas de diferente naturaleza, cuyo propósito ha sido paliar las graves consecuencias ocasionadas por la emergencia sanitaria.

Entre las diferentes medidas cabe destacar las adoptadas en el ámbito tributario, en virtud de las competencias atribuidas a los Territorios Históricos por el Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Ley del Concierto Económico.

Así, cabe enumerar hasta seis decretos forales-norma y diversas órdenes forales dictadas desde el ámbito del Departamento de Hacienda y Finanzas.

A través del presente decreto foral-norma se incluyen seis nuevas medidas que responden a situaciones originadas durante 2020 y especialmente en el tercer trimestre, que son producto de las consecuencias provocadas por el Covid-19.

La primera de ellas incluye como renta exenta en el artículo 9 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la prestación económica del ingreso mínimo vital, aprobado por el Real Decreto-ley 20/2020, de 29 de mayo.

La segunda medida está relacionada con determinadas ayudas concedidas para paliar las consecuencias de la crisis sanitaria derivada del Covid-19.

Se trata de ayudas concedidas para, por una parte, garantizar el derecho a la vivienda a personas o familias en situaciones de vulnerabilidad económica y social, así como para la conciliación de la vida familiar y laboral, y por otra, provocar a través de los programas «Euskadi Turismo Bono» y «Euskadi Bono-Comercio/Euskadi Bono-Denda» el estímulo al consumo en establecimientos de los sectores turísticos, de restauración y hostelería, así como en el sector comercial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Las ayudas concedidas en virtud de las disposiciones regulatorias de dichas ayudas se declaran exentas en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, en tanto en cuanto se consideran ayudas concedidas para paliar los efectos negativos en las personas, familias y sectores económicos afectados por las consecuencias del Covid-19.

La tercera medida establece la calificación de rendimiento de actividad económica de las prestaciones percibidas durante 2020 como consecuencia del Covid-19, por cese de la actividad de autónomos o profesionales; prestaciones reguladas en los Reales Decretos-ley 8/2020, 24/2020 y 30/2020.

Laugarren neurriak zerikusia du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek jarduera ekonomikoak egiten dituztenean egin behar duten ordainketa zatikatuarekin.

Covid-19aren eragina dela eta, enpresaburuen eta profesional autonomoen jarduera ekonomikoetan diru-sarrerak murriztu egin dira haien jarduerak behera egiteagatik, eta murrizpen horrek oso zaila egiten du jardueraren gastuei erregulartasunez erantzutea.

Zirkunstantzia hori aintzat hartuta, eta jarduera horien garapenean sortzen diren finantza arazoak partez arintzearen, zergadun horiek salbuetsita geratzen dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan hirugarren hiruilekoari dagokion ordainketa zatikatua egiteko obligaziotik, eta horrekin jarraipena ematen zaio jada lehen eta bigarren hiruilekoetarako hartutako neurriari, zeina jasota ageri baita martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu-Arauaen 11. artikuluan (Covid-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen Foru Dekretu-Araua).

Bosgarren neurriak jarraipena ematen die lehenago aipatutako xedapenen bitartez sartu diren malgutze neurriei, zeinetan ia gehienek araudian ezarritako epeak luzatzea baitzuten helburu. Neurri honek sozietateen gaineko zergan enplegua sortzeagatik aplikatzen den kenkariarekin du zerikusia, eta ezartzen du ezen 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko epea ez dela kontuan hartuko kontratazioa egin den zergaldia amaitu osteko hurrengo hiru urteetan bukatutako zergaldien barruan langilearen soldata berdin mantendu edo handitzeko baldintza betetzeari dagokionez; epe horretan baldintza hori betezen dela joko da.

Seigarren eta azken neurriaren xedea da ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuestea hipoteka mailegu eta kredituetan eta hipoteka bermerik gabeko errentamendu, mailegu, leasing eta renting eragiketetan moratoriak formalizatzeo egiten diren eskriturak, betiere 2020ko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-Dekretuaren 18tik 23ra bitarteko artikuluetan salgaien garraio publikoa eta bidaiarien autobus bidezko garraio diskrezionala hartzen dituen sektorerako arautzen den moratoria aplikatuta egiten direnean (uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-Dekretua, ekonomikoa suspertzeko neurriak hartzen dituen Covid-19ak garraio eta etxebizitza gaietan duen eraginari aurre egiteko). Era horretan, eragiketa horiei beste moratoria batzuek uztailaren 21eko 6/2020 Foru Dekretu-Arauaen 2. artikuluan jasotzen duten tratamendu bera ematen zaie (6/2020 Foru Dekretu-Araua, Covid-19aren osasun larrialdiaren ondorengo zerga neurri gehigarri buruzkoa).

Neurri horiek onartzeak badu eraginik foru arau bidez erregulatu behar diren gaietan, eta, bilatzen den erantzuna, presakoa izanik, ezin denez lortu foru arauak onartzeko araugintzako prozedura arruntaren bidez, haren epeak luzeak baitira oso, egoki iritzi da neurri horiek foru dekretu-arau bidez onartzea, hartu beharreko neurriak berehala aplikatzekoak baitira.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du ezen, premiazko eta aparteko arrazoiak daudenean, Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela; xedapen horiek foru dekretu- arauak izango dira eta ezin eragingo diete foru organoen antolaketa, araubideari eta funtzionamenduari eragin. Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta osorik bozkatu behar dira berehala, baliozkotuak izateko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

La cuarta medida tiene que ver con el pago fraccionado al que están obligados los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que desarrollan actividades económicas.

La incidencia del Covid-19 en el ámbito de las actividades económicas de los empresarios y profesionales autónomos ha provocado una reducción de ingresos como consecuencia de la reducción de la actividad, que hace muy difícil responder con regularidad a los gastos de dicha actividad.

En atención a dicha circunstancia, y a fin de paliar parcialmente los problemas financieros originados en el desarrollo de dichas actividades, se exonera en el tercer trimestre de la obligación de realizar el pago fraccionado correspondiente al mismo en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, dando continuidad así a la medida ya adoptada para los trimestres primero y segundo en el artículo 11 del Decreto Foral-Norma 1/2020, de 24 de marzo, por el que se aprueban determinadas medidas de carácter tributario como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid-19.

La quinta medida, dando continuidad a las medidas de flexibilización introducidas por las disposiciones anteriormente mencionadas, consistiendo la mayoría de ellas en el establecimiento de una ampliación de plazos en relación con aquellos recogidos en la normativa vigente, determina en materia de deducción por creación de empleo recogida en el impuesto sobre sociedades, que el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2020 no será tenido en cuenta a efectos del cumplimiento del requisito de mantenimiento o aumento del salario de la persona trabajadora durante los periodos impositivos concluidos en los tres años inmediatos siguientes a la finalización del período impositivo en que se realizó la contratación, de tal manera que se presume su cumplimiento en dicho periodo.

La sexta y última medida tiene por objeto eximir en el impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados a las escrituras de formalización de las moratorias de préstamos y créditos hipotecarios y de arrendamientos, préstamos, leasing y renting sin garantía hipotecaria que se produzcan en aplicación de la moratoria hipotecaria para el sector del transporte público de mercancías y discrecional de viajeros en autobús, regulada en los artículos 18 al 23 del Real Decreto-ley 26/2020 de 7 de julio, de medidas de reactivación económica para hacer frente al impacto del Covid-19 en los ámbitos de transportes y vivienda, dando así a estas operaciones el mismo tratamiento otorgado a otras moratorias en el artículo 2 del Decreto Foral-Norma 6/2020, de 21 de julio, sobre medidas tributarias adicionales tras la emergencia sanitaria del Covid-19.

La aprobación de estas medidas inciden en aspectos que requieren su regulación por norma foral, y resultando que la respuesta perseguida, de carácter urgente, no puede conseguirse a través del procedimiento normativo ordinario de aprobación de norma foral, debido a lo dilatado de sus plazos, se considera procedente su aprobación mediante un decreto foral-norma, justificado en la inminente aplicación de las medidas a adoptar.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de extraordinaria y urgente necesidad, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales. Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrerera salbustea.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, h) letra gehitzen zaio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 9. artikuluko 12. zenbakia, eduki hau duena:

«h) Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoa, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-Dekretuaren arabera jasotakoa.»

2. artikulua. Covid-19ak ekarritako osasun krisiaren ondorioz ematen diren laguntza publiko batzuk salbustea.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan salbuetsita egongo dira Covid-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioak arintzeko ematen diren laguntza hauek:

– Etxebizitza librea alokatzeko laguntzak, agindu honen arabera emandakoak: 2020ko apirilaren 30eko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Covid-19 birusak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomikoa eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena.

– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 31ko Aginduaren arabera emandako laguntzak (Alokairu erregimeneko etxebizitza babestuen arloan Covid-19 birusaren inpaktu ekonomikoa erantzuna emateko hartu beharreko neurriak arautzen dituen Agindua).

– Seme-alabei (duten adinagatik), mendeko pertsonen edo Covid-19ak jotako gaixoen (kutzatuei zein bakartuei) lagundu, arreta eman edo haiek zaintzeko, familiek jasotzen dituzten laguntzak, agindu honen arabera emandakoak: 2020ko apirilaren 8ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautzen dituena Covid-19aren inpaktu ekonomikoa erantzuteko.

– «Euskadi Turismo Bona» dirulaguntza programaren onuradunei emandako laguntzak, 2020ko uztailaren 28ko Aginduan arautuak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren Agindua, turismo, sukaldaritza eta ostalaritza sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzea helburu duen «Euskadi Turismo Bona» programa arautu eta 2020rako deialdia egiten duena), eta, orobat, Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien, EAEko hiru hiriburuetakoko udalen eta Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen arteko Jarduera Protokolo Orokorren esparruan ematen diren beste batzuk.

– «Euskadi bonu-denda» dirulaguntza programaren onuradunei emandako laguntzak, 2020ko uztailaren 28ko Aginduan arautuak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzea helburu duen «Euskadi Bono-Denda» programa arautu eta deialdia egiten duena), eta, orobat, Eusko Jaurlaritzaren, Araba eta Bizkaiko foru aldundien, Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen eta Bilboko eta Gasteizko udalen arteko erakunde arteko akordioaren esparruan ematen diren beste batzuk.

3. artikulua. Prestazioak langile autonomoen jarduera eteteagatik.

Norbere konturako langileek edo autonomoek edo Gizarte Segurantzako itsas langileen erregimen berezian jarduera eteteagatik jasotako aparteko prestazioa jarduera ekonomikoen etekin gisa konputatuko da, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-Dekretuak, Covid-19aren inpaktu ekonomikoa eta sozialari aurre egiteko urgentziazko ezohiko neurri buruzkoak, 17. artikuluan jasotakoaren babesean. Era berean konputatuko dira norbere konturako jardura eta lana eteteagatik prestazioa eta denboraldiko langileen jardura eteteagatik ezohiko prestazioa, betiere ekai-

DISPONGO

Artículo 1. Exención del ingreso mínimo vital.

Con efectos a partir del 1 de enero de 2020, se adiciona una letra h) al número 12 del artículo 9 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, con el siguiente contenido:

«h) La prestación económica del ingreso mínimo vital percibida en virtud de lo dispuesto en el Real Decreto-ley 20/2020, de 29 de mayo, por el que se establece el ingreso mínimo vital.»

Artículo 2. Exención de determinadas ayudas públicas concedidas como consecuencia de la crisis sanitaria derivada del Covid-19.

Estarán exentas en el impuesto sobre la renta de las personas físicas las ayudas que se relacionan a continuación para paliar las consecuencias de la crisis sanitaria derivada del Covid-19:

– Las ayudas al alquiler de vivienda libre concedidas en virtud de lo dispuesto en la Orden de 30 de abril de 2020, del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, por la que se regulan y convocan ayudas al alquiler de vivienda libre para hacer frente a las situaciones de vulnerabilidad económica y social como consecuencia de la crisis sanitaria derivada del Covid-19.

– Las ayudas concedidas en virtud de la Orden de 31 de marzo de 2020, del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, por la que se regulan las medidas a adoptar en materia de vivienda protegida en régimen de alquiler a fin de responder al impacto económico del Covid-19.

– Las ayudas de apoyo a familias para la asistencia, atención y cuidado de sus hijos e hijas, por razón de su edad, de personas dependientes o de personas enfermas (contagiadas o aisladas) que hayan resultado afectadas por el Covid-19, concedidas en virtud de lo dispuesto en la Orden de 8 de abril de 2020, de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, por la que se regulan las medidas específicas en materia de apoyo a las familias para responder al impacto económico del Covid-19.

– Las ayudas concedidas a las personas beneficiarias del programa subvencional recogido en la Orden de 28 de julio de 2020, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca para el 2020 el programa «Euskadi Turismo Bono» de estímulo al consumo en establecimientos de los sectores turísticos, de restauración y hostelería de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y otras que se concedan en el marco del Protocolo General de Actuación entre el Gobierno Vasco, las tres Diputaciones Forales, los Ayuntamientos de las tres capitales vascas y la Asociación de Municipios Vascos, Eudel.

– Las ayudas concedidas a las personas beneficiarias del programa subvencional recogido en la Orden de 28 de julio de 2020, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca el programa de estímulo del consumo en establecimientos del sector comercial de la Comunidad Autónoma del País Vasco «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda», y otras que se concedan en el marco del Acuerdo interinstitucional entre el Gobierno Vasco, Diputaciones Forales de Álava y Bizkaia, la Asociación de Municipios Vascos Eudel y los Ayuntamientos de Bilbao y Vitoria-Gasteiz.

Artículo 3. Prestaciones por cese de actividad de los trabajadores autónomos.

La prestación extraordinaria por cese de actividad percibida por los trabajadores por cuenta propia o autónomos, o en el Régimen Especial de la Seguridad Social de los Trabajadores del Mar, al amparo del artículo 17 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19, se computará como rendimiento de actividades económicas. De la misma forma se computarán la prestación por cese de actividad y trabajo por cuenta propia y la prestación extraordinaria de cese de

naren 26ko 24/2020 Errege Lege- Dekretuak, enpleguaren sustapenari eta lan autonomoaren babesari eta sektore industrialaren lehiakortasunari buruzkoak, 9. eta 10. artikuluetan jasotakoaren babesean jaso badira, bai eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuak, Enpleguaren aldeko gizarte neurriei buruzkoak, 13. eta 14. artikuluetan ezarritako prestazioak ere.

4. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan 2020ko hirugarren hiruhilekoaren ordainketa zatikatua egiteko obligaziotik salbuestea.*

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek ez dute Gipuzkoako Foru Ogasunean autoliquidatu eta ordaindu beharko 2020ko hirugarren hiruhilekoari dagokion ordainketa zatikatua.

5. artikulua. *Enplegua sortzeagatik aplikatzen den kenkaria.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak enplegua sortzeagatik araututako kenkariari dagokionez 66. artikuluan 2. apartatuko seigarren paragrafoan jasotzen duen hiru urteko epea zenbatzearen ondorioetarako, 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko epea ez da kontuan hartuko, eta paragrafo horretan aurreikusitako baldintza epe horretan betetzen dela joko da.

6. artikulua. *Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzea.*

2020ko uztailaren 9tik aurrerako ondorioekin, eduki hau ematen zaio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauaren 41.I.B) artikuluko 23. zenbakia:

«23. Hipoteka mailegu eta kredituetan eta hipoteka bermerik gabeko errentamendu, leasing eta renting eragiketetan moratoriak formalizatzeko eskriturak, betiere uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-Dekretuaren 18tik 23ra bitarteko artikuluetan salgaien garraio publikoa eta bidaiarien autobus bidezko garraio diskrezionala hartzen dituen sektorerako arautzen den moratoria aplikatuta egiten direnean (uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-Dekretua, ekonomikoa suspertzeko neurriak hartzen dituena Covid-19ak garraio eta etxebizitza gaitan duen eraginari aurre egiteko).»

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaie foru dekretu-arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu-arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, bere xedapenetan espresuki jasotzen diren ondorioak eragotzi gabe.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jabier Larrañaga Garmendia. (5255)

actividad para los trabajadores de temporada, percibidas al amparo de lo dispuesto en los artículos 9 y 10 del Real Decreto-ley 24/2020, de 26 de junio, de medidas sociales de reactivación del empleo y protección del trabajo autónomo y de competitividad del sector industrial, así como las prestaciones previstas en los artículos 13 y 14 y disposición adicional cuarta del Real Decreto-ley 30/2020, de 29 de septiembre, de medidas sociales en defensa del empleo.

Artículo 4. *Exoneración del pago fraccionado del tercer trimestre de 2020 en el impuesto sobre la renta de las personas físicas.*

Los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas que ejerzan actividades económicas no estarán obligados a autoliquidar e ingresar en la Hacienda Foral de Gipuzkoa el pago fraccionado correspondiente al tercer trimestre de 2020.

Artículo 5. *Deducción por creación de empleo.*

A efectos del cómputo del plazo de tres años contenido en el párrafo sexto del apartado 2 del artículo 66 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en relación con la aplicación de la deducción por creación de empleo, no se tendrá en cuenta el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2020, presumiéndose que concurre el requisito contemplado en dicho párrafo.

Artículo 6. *Modificación del impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados.*

Con efectos desde el 9 de julio de 2020 se dota de contenido al número 23 del artículo 41.I.B) de la Norma Foral 18/1987, de 30 de diciembre, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en los siguientes términos:

«23. Las escrituras de formalización de las moratorias de préstamos y créditos hipotecarios y de arrendamientos, préstamos, leasing y renting sin garantía hipotecaria que se produzcan en aplicación de la moratoria hipotecaria para el sector del transporte público de mercancías y discrecional de viajeros en autobús, regulada en los artículos 18 al 23 del Real Decreto-ley 26/2020, de 7 de julio, de medidas de reactivación económica para hacer frente al impacto del Covid-19 en los ámbitos de transportes y vivienda.»

Disposición final primera. Habilitaciones normativas.

Se faculta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias en desarrollo y aplicación del presente decreto foral-norma.

Disposición final segunda. Entrada en vigor.

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de los efectos expresos previstos en el mismo.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Jabier Larrañaga Garmendia. (5255)